

Euzko Mendien Oroipenak

*Nere lagun maite Sota eta Aburto
tañ Imanol, eri maitasun biotzez.*

¡¡Euzko mendiak, Euzko mendiak...!! ¿Zergatik ikusten doguz zuen zelai ta basoak aĩn utzik...?

¿Zergatik zuen ixiltasuna apurtzen, dabe ekaitz gogofak eta aixe txistuak bakarik...?

¿Zergatik ezda aitzen zugaitzen dardara, eta efekatxoan txir-txir basterik...?



¡¡Aitor, Aitor, zure guda santzuak ¿ixildu ote ziran betiko...?

Euzko mendien oroipenak itunak dira. Nun dituzue Euzko mendiak zuen Lartaun, Lekobide, eta beste ainbeste seme kelmentsu, abenda baten odola aĩn bikaiñ eta bulartsu erakutzi zutenak gizaldietan ziar...?

Nun Padura, Amayur, Izaba eta beste toki azkotan aĩn mai-tekor gorde ziñusten seme maitiak...?

Itun Euzko mendiak ikusten dezutelako zuen abenda ilobi oñetan, ikusten dezutelako

zuen semien maitasun txiroa eta argala.

Lenago zuen semiak ziran zuen basoetako aritz tantaiak lez indartsuak, eta aritz baten azpian egiten zuten ziñ abenda gordetzeko...

Gauñ zuek mendi maitiak ikusten dezue or goitik zuen abendan eña,

bifinduta indaí gabe, beren semiak loi taftian... diru zale, beren Abenda eta Abefia ezagutu nai ezik zikoitz taftian maitasun gabe.

Zuen kerispean mendi maitiak asi dezue Euzko-Efi au, zuen altzo biguñian asi dituzue ainbeste seme beren odola agertzen lotzatu ezdiranak, eta beren odolana trebetaruna nun nai agertu dutenak, ¿eta gauf...?

¡¡Oi mendi maitiak!! Negaí dagizue danok ikustian zuen efi au dagon bezela, negaí dagizue eta lotza bera begiratzan Abenda ilobi oñetan ikus-teko, gorantz begiok mendi maitiak, gorantz begiok Donokiruntz ba emen beian ezdago ezer zuenik:

Aritz orleya
Oritxu da ta
Kurutz zurija
Baltzitzu.....

Ala ere itxaron pixkat mendi maitiak, itxaron pixkat ilobi onduan, ez il ba zuen semiak geran lez zuen gana dijuaz gure begiak eta gure biotzak, zuen altzuan jaio giñan eta zuen altzuan nai degu il.

Zuek zutiñik agertzen zeraten bitaftian zuekin bizi nai degu, zuengana guaz goi-goiraño zuek laztantzera, eta aftu gure laztanak ba zuen semiak gara, guk of goiko gañetatik negaí egiten degu zuek lez, itun geratzen gera... baña, biotz bat degu eta bera zuentzat, egiazko maitetasuna ez-keintzen diguzutelako, eta gure Abefitik zuek bakarik zutiñik zaudetelako.

Itxaron, zutiñik, ez il, igo zeruruntz, ba zuek zerate gure itxaropena, Abendan itxaropena, eta entzun zuen seme aundien baten abesti goxo xamufa:

Obi-onduan
Negaíez zakust
Miñes beterik
¡Gaxua!
Amatau yatzuz
Gogua
Eta odol
Ofen berua
Ta, Ama jondiño il etzara!

LINAZASORO TAR KARLA
(Euzko Mendigoizale Batzakua)

Zumafaga'n ilbeltza.